



# Barne Informazio Sistema Erabiltzeko Arauak

## ALDAKETEN KONTROLA

Edizioa	Aldatutako atalak	Aldaketaren deskribapena	Data
1.0 b.	Jatorrizko Dokumentua	Jatorrizko Dokumentua	2023/06/16

## EDUKIA

<b>1</b>	<b>SARRERA .....</b>	<b>3</b>
1.1	Aplikazio eremu objektiboa .....	3
1.2	Aplikazio eremu subjektiboa .....	3
1.3	BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN Organo Arduraduna .....	3
<b>2</b>	<b>BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN ARAUBIDE JURIDIKOA .....</b>	<b>3</b>
<b>3</b>	<b>BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK.....</b>	<b>4</b>
3.1	Fede onaren printzipioa .....	4
3.2	Errepresaliak debekatzea .....	4
3.3	Anonimatua .....	6
3.4	Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa .....	6
3.5	Ohorerako, errugabetasun presuntziorako eta defentsarako eskubidea .....	6
<b>4</b>	<b>KOMUNIKAZIO PROZEDURA .....</b>	<b>6</b>
4.1	Komunikatzeko eta laguntzeko betebeharra.....	6
4.2	SALAKETEN KANALERAKO sarbidea .....	7
4.3	SALAKETAREN gutxieneko edukia.....	7
4.4	Komunikatzeko beste bide batzuk.....	7
4.5	SALAKETA jasotzea .....	8
<b>5</b>	<b>SALAKETA JASO ONDORENGO PROZEDURA .....</b>	<b>8</b>
<b>6</b>	<b>ERRUKI PROGRAMA.....</b>	<b>9</b>
<b>7</b>	<b>BARNE INFORMAZIO SISTEMA ERABILTZeko ARAUEN INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA.....</b>	<b>9</b>

# 1 SARRERA

## 1.1 Aplikazio eremu objektiboa

(i) 2/2023 Legean, otsailaren 20koan, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoan (aurrerantzean, "2/2023 LEGEA"); (ii) 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoan (aurrerantzean, "DBLO-EDB"); eta (iii) aplikatzekoak diren beste edozein arautan ezarritakoarekin bat eginik, Barne Informazio Sistema Erabiltzeko Arau hauek (aurrerantzean, "ERABILERA ARAUAK") xede dute FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA/CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAN (aurrerantzean, "CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA") detektatzen diren 2/2023 LEGEAREN 2. artikuluan jasotako gaien aurkako edozein jarduerari buruzko susmoak edo/eta gertakariak konfidentzialki jakinarazteko eta, ondoren, izapidetzeko prozedura ezartzea.

Dokumentu honen ondorioetarako, Barne Informazio Sistema (aurrerantzean, "BARNE INFORMAZIO SISTEMA") honela osatua dagoela ulertzen da: salaketen kanalak osatzen duen elementu multzoa; salaketak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko ardura duen organoa; eta haren funtzionamendua arautzen duen prozedura. Bestalde, Salaketan Kanala (aurrerantzean, "SALAKETEN KANALA") komunikazioak jasotzeko postontzia edo bidea dela ulertzen da.

## 1.2 Aplikazio eremu subjektiboa

SALAKETEN KANALA, BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN parte den aldetik, sektore pribatuan edo publikoan lan egiten duten eta testuinguru laboral edo profesional batean arau hausteei buruzko informazioa lortu duten informatzaileen (aurrerantzean, "INFORMATZAILEAK") eskura jartzen da, 2/2023 LEGEAREN 3. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

## 1.3 BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN organo arduraduna

BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN bidez izapidetutako komunikazio, informazio-eskaera edo/eta kontsulta guztien hartzailea eta arduraduna Compliance Officerra izango da, edo, interes gatazkarik egonez gero, Batzorde Betearazleko Lehendakaria, eta BARNE INFORMAZIO SISTEMA kudeatzeaz, kontrolatzeaz eta gainbegiratzeaz eta ikerketa-espeditenteak izapidetzeaz arduratuko da.

# 2 BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

BARNE INFORMAZIO SISTEMA, haren funtzionamendua eta haren erabiltzaileen eskubide, betebeharrak, berme eta sarbide- eta erabilera-baldintzen araubidea ERABILERA-ARAUETAN aurreikusitakoaren eta 2/2023 LEGEAN eta DBLO-EDBan jasotako aurreikuspenen arabera arautuko dira.

Horrez gain, SALAKETEN KANALA, modu osagarrian eta aplikagarria den heinean, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN web orriaren Erabilera-Baldintzen eta Pribatutasun Politikaren arabera arautuko da.

SALAKETEN KANALA erabiltzen duten INFORMATZAILEEK hura arduraz eta zuzen erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, betiere indarrean dagoen legediaren arabera.

Nolanahi ere, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA, BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN arduraduna izango da.

## **3 BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK**

BARNE INFORMAZIO SISTEMAK ondoko printzipioak ditu oinarri:

### **3.1 Fede onaren printzipioa**

INFORMATZAILEEK fede onez jokatu behar dute eta ez dute akusazio faltsurik egin behar. Fede ona dagoela ulertuko da honako kasu hauetan:

- Komunikazioari bide ematen dion jokabidea arauz kontrakoa, bidegabea edo ohiz kanpokoa dela pentsatzeko arrazoizko egitateak edo zantzuak daudenean;
- INFORMATZAILEAK frogarik edo zantzurik izan ez arren, fede onez ari dela ulertuko da baldin eta komunikazioa CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN edo indarrean dagoen legediaren interesak babesteko egiten bada, edota mendekua hartzeko, norbait moralki jazartzeko, kalte labora edo profesionala eragiteko edota inplikaturako pertsonen edo hirugarren baten ohorea kaltetzeko asmorik gabe egiten bada.

INFORMATZAILEETAKO edozeinek adierazpen faltsuak, engainagarriak edo fede txarrekoak nahita eginez gero, ondorioak honako hauek izan litezke:

- (i) Diziplina-neurriak hartzea, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK ezarritako edo/eta indarreko legerian aurreikusitako diziplina-araubideari eta zehapen araubideari buruzko arauetan aurreikusitakoaren arabera;
- (ii) Kontratzuko klausula zigortzaileak aktibatzea, halakorik balego; edo/eta
- (iii) Agintaritza judizialari edo Fiskaltzari horren berri ematea.

### **3.2 Errepresaliak debekatzea**

Aurreko atalean aurreikusitakoaren kalterik gabe, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK debekatu egiten du edozein motatako errepresaliak hartzea INFORMATZAILEEN aurka, bai eta 2/2003 LEGEAREN 3. artikuluan jasotako pertsonen aurka ere, 2/2023 LEGEAREN 35. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Errepresaliatzen hartzen da Legeak debekatzeko duen ekintza- edo ez-egite mota guztiak, edota, zuzenean edo zeharka, tratu kaltegarria suposatzen dutenak, baldin eta horiek jasaten dituzten pertsonak testuinguru labora edo profesionalan desabantailan jartzen baditu beste pertsona batekin alderatuta, soil-soilik INFORMATZAILE izateagatik edo jakinarazpen publiko bat egin izanagatik.

INFORMATZAILEAK, edo 2/2023 LEGEAREN 3. artikuluan aurreikusitako beste edozein pertsonak, errepresaliak jasan dituela baieztatzen bada, dagokion ikerketa abiaraziko da horien egilearen/egileen aurka, eta, hala badagokio, zigortua/k izango da/dira.



### 3.3 Anonimatua

Komunikazioak SALAKETEN KANALAREN bidez modu erabat anonimoan egitea aukeratu ahal izango dute INFORMATZAILEEK.

### 3.4 Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa

INFORMATZAILEAREN, salatuaren eta INFORMATZAILEAREN komunikazioak eragindako ikerketa-prozesuan parte hartzen duen beste edozein pertsonaren komunikazioa eta identitatea konfidentzialak izango dira beti.

Era berean, komunikazio bat SALAKETEN KANALA ez den beste bide batzuetatik bidaltzen bada, edo komunikazio horien kudeaketa esleituta ez daukaten langileei bidaltzen bazaie, konfidentzialtasuna bermatu egingo da beti. Halakorik gertatuz gero, komunikazioaren hartzaileak hura berehala bidali beharko dio Compliance Officerrari, edo, interes gatazkarik egonez gero, zuzenean bidali ahal izango dio Batzorde Betearazleko Lehendakariari.

Konfidentzialtasuna bermatzeko, honako berme hauek ezartzen dira:

- Ezin izango da parte hartzaileen nortasuna jakinarazi haien banan-banako baimenik gabe.
- 2/2023 LEGEAREN 32. artikuluan aurreikusitako pertsonak bakarrik ezagutu ahal izango dute parte hartzaileen nortasuna.
- Informazio hori bidegabe ezagutarazteak diziplinazko zehapena ekarriko du berekin eta Fiskaltzari jakinarazi ahal izango zaio, delitua izan daitekeen neurrian.

Jakinarazitako egitatea ez-zilegi penala izango balitz, kasu horretan bakarrik jakinaraziko zaio agintari judizial edo administratibo eskudunari edo Fiskaltzari komunikazio horrek eragindako ikerketa-prozeduran esku hartu dutenen identitatea. Halaber, egitateek Europar Batasunaren finantza-interesei eraginez gero, Europako Fiskaltzari ere jakinaraziko zaio.

### 3.5 Ohorerako, errugabetasun presuntziorako eta defentsarako eskubidea

CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK eskubide horiek zainduko ditu, eta salatutako pertsonak beraien aurkako akusazioetatik legezko bermerik handienarekin defendatzeko dituzten eskubideak bermatu egingo ditu.

## 4 KOMUNIKAZIO PROZEDURA

### 4.1 Komunikatzeko eta laguntzeko betebeharra

CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA osatzen duten profesionalak (aurrerantzean, "PROFESIONALAK"), haien kontratu-modalitatea, posizio hierarkiko edo funtzionala edozein dela ere, indarrean dagoen legeria zaindu beharko dute; beraz, jakinaren gainean daudenean edo arrazoizko zantzuak dituztenean, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAN antzemandako edozein jarduketaren berri eman beharko dute, baldin eta 2/2023 LEGEAREN 2. artikuluan jasotako gaien aurkakoa bada.

Era berean, esku hartzera deituak diren PROFESIONALAK, SALAKETEN KANALAREN bidez edo beste edozein kanalen bidez jasotako komunikazioen ondorioz abian jar daitezkeen ikerketetan laguntza ematera behartuta egongo dira, hala eskatuz gero, FUNTZIONAMENDU ARAUETAN aurreikusitako komunikazioen baten berri ematen denean aipatutako kanal horien bidez. Laguntzera behartuta egon arren, ikerketetan ez laguntzeak diziplina-zehapenak ekar litzake berekin.

SALAKETEN KANALA ezin izango da erabili sortu denaz bestelako helburuetarako.

#### **4.2 SALAKETEN KANALERAKO sarbidea**

INFORMATZAILEAK WEBGUNEAREN bidez sartu ahal izango dira SALAKETEN KANALERA, eta, hortik, komunikazioa (aurrerantzean, "**SALAKETA**") idatziz edo ahoz egin ahal izango dute.

Gainera, INFORMATZAILEAK eskatuta, aurrez aurreko bilera baten bidez ere aurkeztu ahal izango da SALAKETA bat, gehienez ere zazpi (7) egun naturaleko epean, bilera eskatzen denetik zenbatzen hasita. Aipatutako eskaera hierarkian gorago dagoenari edo/eta Compliance Officerrari egin beharko zaio, edo, interes gatazkarik egonez gero, Batzorde Betearazleko Lehendakariari.

SALAKETA aurkezteko edozein bide erabilita ere, INFORMATZAILEAREN datu pertsonalak tratatu behar baldin badira (SALAKETA ez anonimoa), INFORMATZAILEARI informazioa emateko betebeharrak betetzen direla bermatu beharko da, bai eta datu pertsonalak babesteko aplikatu beharreko legerian ezarritako zilegitasuna ere.

#### **4.3 SALAKETAREN gutxienerako edukia**

Aurkeztutako SALAKETAK, gutxienez, honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Salatutako pertsonaren identitatea, haren izen-abizenak eta, ezaguna bada, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAN duen kargua adieraziz.
- SALAKETA eragin duen gertakaria: zertan den salatutako jokabidea, noiz gertatu zen gutxi gorabehera (data), zer egunetan detektatu zen eta nola jakin zen.
- Hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren dokumentuak edo frogabideak.

Orobat, hala nahi izanez gero, INFORMATZAILEAK honako alderdi hauetako edozein erantsi ahal izango du: INFORMATZAILEAREN nortasuna, harekin harremanetan jartzeko modua (helbidea, posta elektronikoa edo jakinarazpenak jasotzeko leku segurua), bai eta garrantzitsutzat jotzen duen beste edozer ere.

Nolanahi ere, SALAKETAK ahalik eta deskriptiboena izan beharko du, salatutako pertsona edo/eta jokabidea errazago identifikatu ahal izateko.

Gertakari berari edo gertakari erlazionatuari buruzko SALAKETA bat baino gehiago jasoz gero, SALAKETA horien izapidetza prozedura bakarrean pilatu ahal izango da.

#### **4.4 Komunikatzeko beste bide batzuk**

CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAN antzemandako edozein portaeraren berri emateko lehentasunezko bidea SALAKETEN KANALA izango da, aipatu portaera 2/2023 LEGEAREN 2. artikuluan jasotako gaien aurkakoa denean.

Hala ere, SALAKETA SALAKETEN KANALAREN bidez egiten dutenei informazioa emango zaie, modu argian eta eskuragarrian, kanpoko informazio kanalei buruz, agintari eskudunengana jo dezaten edo, hala badagokio, Europar Batasuneko instituzio, organo edo erakundeetara jo dezaten.

2/2023 LEGEAREN 2. artikuluan jasotako gaien aurkakoak diren jarduketei buruzko susmoen edo/eta gertakarien gaineko edozein informazio jakinarazten bazaio CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI SALAKETEN KANALA ez den beste bitarteko batzuen bidez edo haren kudeaketaz arduratzen ez diren langileen bidez, informazio hori berehala igorri beharko da SALAKETEN KANALAREN bidez.

#### 4.5 SALAKETA jasotzea

SALAKETA jaso ondoren, jaso izanaren adierazpena egingo da hurrengo zazpi (7) egun naturaleko epean, salbu eta jarduera aipatuak SALAKETAREN konfidentzialtasuna arriskuan jar badezake.

## 5 SALAKETA JASO ONDORENGO PROZEDURA

Jarraian, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK SALAKETA jaso ondoren egingo dituen urratsak zehazten dira:

- 1) SALAKETA jaso eta **gehienez hamar (10) egun naturaleko epean**, INFORMATZAILEARI jakinaraziko zaio (i) ez dela onartu edo (ii) onartu egin dela.
- 2) Onartzen denetik **gehienez ere bost (5) egun naturaleko epean**, SALAKETA jakinaraziko da salatuari gertaeren berri zehatza emanez, eta ikerketaren edozein unetan entzuna izateko eskubidea duela jakinaraziko zaio. Salatuari ez zaio inola ere jakinaraziko INFORMATZAILEA nor den, eta ez zaio komunikaziorako sarbiderik emango.
- 3) Jarraian, **salatuari entzuteko** izapidea abian jarriko da eta komunikazioan jakinarazitako **egintzak ikertzeari ekingo zaio**<sup>1</sup>.
- 4) **Gehienez ere hiru (3) hilabeteko epean** (konplexutasun handiko kasuetan epe hori **gehienez ere beste hiru (3) hilabetez** luzatu ahal izango da), INFORMATZAILEARI eta salatuari ikerketaren ondorioak jasotzen dituen txostena jakinaraziko zaie; txostena erabat anonimizatuta egongo da eta eginbidearen alderdirik garrantzitsuenak jasoko ditu.

Gainera, INFORMATZAILEAREKIN komunikazioa mantentzeko aukera aurreikusten da, eta, beharrezkotzat joz gero, informazio gehigarria eskatu ahal izango zaio.

<sup>1</sup> Ikerketaz arduratzen den pertsonak eskuragarri izango ditu helbide elektronikoak, fitxategiak, egindako deiak, Interneteko historiala, sarrerren eta irteeren erregistroa, gastuen eta bidaien erregistroa, kaltetutako ordenagailuen back-upak eta beste edozein eginbide.



## **6 ERRUKI PROGRAMA**

CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK erruki programa sustatu nahi du, 2/2023 LEGEAREN 2. artikuluan jasotako gaien aurkako jardueren edo jokabideen detekzioa errazteko, eta horrela, ikuskatzaile, arautzaile eta agintari judizialen aurrean legeak betetzeko kulturarekiko konpromiso maila handia finkatu eta egiaztatzeko.

Arau hausteen erantzule edo jakitun diren CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOKO PROFESIONALEI zuzendutako programa da.

Iraganeko, gaur egungo edo balizko egintza ez-zilegi baten berri ematen duen CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOKO PROFESIONALAK, egintza horretan erantzukizuna badu eta haren jardunak ondorio penalik ez badakar, eta, SALAKETA ikertzen ari den pertsonaren iritziz, hasieratik bertatik edo instrukzioan zehar, ikerketan lagunduko duten froga eraginkorrak aurkezten baditu (esaterako: beste PROFESIONAL batzuen edo hirugarrenen inplikazioa; legez kontrako egintzaren garrantzia; CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK jasandako galera; arau hausleek ateratako onura; egindako arau haustearen iraupena; eta abar), ezar dakioken zigorra nabarmen murriztu ahal izango du.

Aipatutako programa, oro har, ez zaie aplikatuko CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOKO departamentuetako zuzendariei eta arduradunei.

## **7 BARNE INFORMAZIO SISTEMA ERABILTZEKO ARAUEN INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA**

ERABILERA ARAUAK CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOKO Batzorde Betearazleak onartu zituen 2023ko ekainaren 16an, berehala sartu ziren indarrean eta indarrean jarraituko dute, bertan aldaketarik egiten ez den bitartean.